




- INTERESGUNEAK**
- 28- Postetxea
 - 29- Osasun Zentroa
 - 30- Santa Ana Antzokia
 - 31- Polikiroldegia
 - 32- Pilotalekua-Azoka
 - 33- Kultur Etxea
 - 34- CPD Centro de Procesos de Datos
 - 35- Mondragon Unibertsitatea
 - Larraña Institutua
 - Barnetegia
 - 36- Gaztelekua
 - 37- MONE Negozio Eskola
 - 38- Bake Epaitegia
 - 39- Artxibo Historiko Probintziala
 - 40- San Martin Egoitza
 - 41- Udaltzaingoa

KALE IZENDEGIA			
Aita Lizarralde kalea	I4I5	Lazarraga kalea	I4
Aita Madina kalea	F4G5	Lizaur kalea	F4F5
Aita Mortara kalea	F5G5	Lope Agirre kalea	H4H5
Apaolaza A. kalea	I4	M. Aozaratz kalea	H6I6
Arantzazuko Ama kalea	I5I6J6	Maiatzaren 1a plaza	G5
Atzeko kalea	H5	Martzelino Zelaia kalea	I5
Auzabarri kalea	H7I7	Mendiko kalea	H4
Bakardadeko Ama kalea	G4G5	Motxon kalea	H5H6
Berezaio auzoa	L6	Murgia auzoa	L5
Bidebarrieta kalea	G5H6I6	Olakua auzoa	K3
Errekalde auzoa	G3H3	Otadui zuhaitzia	C3D3
Errementari plaza	H6	Patrua kalea	H5
Euskadi etorbidea	H4I4	Portu kalea	G5H5
Foruen enparantza	G5	Ramon Irizar kalea	H5
Garagaltza auzoa	F7	Roke Azkune kalea	I5J5
Gerriko kantoia	H5	San Anton kalea	G4
J. Moia kalea	H4	San Juan kalea	G5
Kale Barria	H5I5	San Lorentzo auzoa	J2J3
Kalegoiena	H6	San Martin zuhaitzia	J5K5
Kale Zaharra	E4F4G5	Santa Marina plaza	H4
Kanpantxo kalea	F4	Ultzein kalea	H5I5
Kantonoste	H5	Unibertsitate etorbidea	F5
Kurtzebe kalea	H4I4	Zubiarri kalea	H6
Larraña auzoa	H2	Zumeltzegi kalea	G4

- ONDARE ARTISTIKOA**
- 1- Udaletxea
 - 2- "Sancti Spiritus" Unibertsitatea
 - 3- Zumeltzegi dorretxea
 - 4- Hernani etxea
 - 5- San Miguel Parrokia
 - 6- Bergantzo o "Zaratekua" etxea
 - 7- Lazarragako dorretxea
 - 8- Antia Jauregia
 - 9- Baruena etxea
 - 10- Madinabeitia etxea
 - 11- Otadui-Jausoro etxea
 - 12- Urain edo Zubiaur dorrea
 - 13- Bidaurretako Monasterioa
 - 14- Santa Ana Antzokia
 - 15- Olakuako dorrea
 - 16- San Martin Ermita
 - 17- San Anton Plaza
 - 18- "Don Pedruena"
 - 19- Foruen Enparantza
 - 20- M. Aozarazaren jaiotetxea
 - 21- Maiatzaren 1a Plaza
 - 22- Laterandarren eliza
 - 23- San Lorentzoko ermita
 - 24- Anaiteen Plaza
 - 25- Egañena etxea
 - 26- San Migel errota
 - 27- Arantzazu



Monumentu Nagusiak

1.UDALETXEA (1)
Martin Carrerak egina, 1778an amaitu zen. Barroko-rokoko estilokoa da; Gipuzkoan askotan ikusten dira era honetakoak, oso ondo egokitzen baitira arkupedun enparantzetan.

2.“SANCTI SPIRITUS” UNIBERTSITATEA (2)
Euskal Herriko berpizkunde garaiko eraikinik garrantzitsuenetakoa da. 1540an hasi ziren eraikitzen. Barruan azpimarratzekoak dira kaperak, klaustro ederra eta mudejar erako sabai apaindu aberatsa. Rodrigo Mercado de Zuazola oñatiar apezpikuak sortu zuen.

3.ZUMELTZEGI DORRETXEA (3)
Hor bizi izaten zen Oñatiko kondea herrira etortzen zenean. XIII. mende amaierako edo XIV. hasierako eraikina da. Garai hartako dorretxe asko Enrike IV.enaren garaian moztu ziren arren, honi ez zioten ezer egin.

4.HERNANI ETXEA (4)
XVI. mendeko eraikin honetan egon zen Uniber-tsitatea, oraingoa egin bitartean.

5.SAN MIGEL PARROKIA (5)
XV. mendeko eraikin gotiko honi Unibertsitatea sortu zuenaren eskariz egin zitzaion klaustroa. Barrualdean Diego de Siloék egindako Zuazolaren hilobia platereskia eta J.B. de Susok egindako erretaula nagusi barrokoa ere. Dorrea XVIII. mende amaierakoa da, eta Martin Carrerak egin zuen.

6.LAZARRAGATARREN DORREA (7)
Atzeko kalean dagoen etxe honek garitoiak ditu dorrean eta aurrealdea esgrafiatua du. XV. mendeaz geroztik Lazarragatarrak bizi izan ziren hemen. Lehenbiziko handitze lanetatik arku zorrotza duen sarrera nagusia besterik ez dago.

7.SANTA MARINA PLAZA (9-10-11)
XVIII. mendeko hiru jauretxe eder ditu inguruan: Madinabeitia, Antia eta Baruena etxeak.

8.OTADUI JAUSORO ETXEA (11)
Ertzean balkoia duen jauretxea XVI. mende Erdialdean edo XVII hasieran eraiki zen.

9.URAIN EDO ZUBIAUR DORREA (12)
Toki estrategikoan dagoenez, dorrearen zeregina defendatzea zela uste da, edo pasabidea kontrolatzea bidesaria ordaintzeko.

10.BIDAURRETAKO MONASTERIOA (13)
Juan López de Lazarraga Errege Katolikoaren kontulari nagusiak 1510ean eraikia, azpimarratzekoak dira barruko erretaula barrokoa eta platereskia. Azken hau izan zen Gipuzkoako lehenbiziko erretaula errenazetista.

11.SAN MARTIN ERMITA (16)
XVI. mende hasierakoa dirudi eraikinak eta egurrezko armaduraz estalita dago (zutiko baten gainean), arkitektura herrikoia adierazgarri aberatsa da. Erretaula nagusia Pierres Picart-ena da.

12.SAN ANTON PLAZA (17)
Triangelu erako gune txiki honetan harrizko arku batzuk daude, bere garaian harrobiren baten zati izan zitekeen harkaitz batean.

13.“DON PEDRUENA” (18)
Jauregi barroko berantiar hau, XIX. mende amaieran edo XX.aren hasieran berreraiki zen.

14.FORUEN ENPARANTZA (19)
XIX. mende amaieran proiektatua, arkupedun hiru alde ditu eta laugarrena mendi aldera irekita dago pilotalekuak mugatuta.

15.MAIATZAREN 1a PLAZA (21)
Oñatiko plaza ederra. Hemen egiten zen azoka Foruen enparantza eraiki aurretik. Interes handiko bi eraikin daude plazaren inguruan: Bergantzo eta Egaña etxeak.

16.LATERANDAR KANONIGOEN ELIZA (22)
Bihotz Santuari eskainitako eliza hau 1890ean eraiki zuten ordena bereko komentuaeren ondoan. Estilo neogotikoa.

17.ARANTZAZU (27)
Natura malkarraren erdian zutik eta lirain ageri dira Arantzazuko Basilikako dorreak. Arte sakro modernoaren adierazle aparta, Sainz de Oizak eta Luis Laorgak diseinatutako lan honetan artista handien lanak daude: J. Oteiza, E. Txillida, J. de Eulate, L. Muñoz eta N. Basterretxea. Horrez gain, gure geografiako mendirik altuenetara joateko ohiko abiapuntua ere bada.

18.ANAITZEEN PLAZA (24)
Plaza honek erreferentzia egiten die munduko herri desberdinekin egin diren anaitze eta senidetzeei: Sahara, Mexiko, Frantzia, Italia eta Argentina.

19.SAN MIGEL ERROTA (26)
Oñatiko Kondearen jabetzakoa zen erdi aroko errota hau Turismo Bulegoan dago kokatuta. Aurrez deituz gero funtzionamenduan ikusteko aukera izango dute bisitariek.

Datu interesgarriak

Helbide eta telefono interesgarriak

Udala	Foruen Enparantza, 1	943 78 04 11
Kultur Etxea	Sta. Marina Plaza, 1	943 78 03 53
Gipuzkoako Protokolo Artxib. Histo.	Unibertsitate Etorb.	943 78 12 05
Herri Ardularitzaren E. Erakundea	Unibertsitate Etorb.	943 78 20 11
Lege Soziologiako Nazio. Erakundea	Unibertsitate Etorb.	943 78 30 64
Postexea	Unibertsitate Etorb. 9	943 78 08 54
Bake Epaitegia	Bidebarrieta, 1	943 78 02 54
Taxiak	Foruen Enparantza	943 78 03 65
Polikiroldegia	Bidebarrieta, 6	943 71 63 75
“Pake Leku” Jubilatuen etxea	San Juan, 2	943 78 09 61
Turismo Bulegoa	San Juan, 14	943 78 34 53
Verduri Hall. Gaztelekua	Foruen Enparantza, 4	943 71 60 94
Oñatiko Garapen eta Tur. Ajentzia	San Juan kalea, 5	943 71 88 08

Larrialdietarako telefonoak

Udaltzaingoa	Bidebarrieta, 1	943 78 04 11
Suhiltzailleak	Zubillaga s/n.	943 78 28 00
Anbulategia	San Juan, 17	943 03 54 30
Eskualde Ospitalea	Zaldibar (Arrasate)	943 03 53 00
Anbulantzia	Gipuzkoa	943 33 03 30
Gurutze Gorria	San Prudencio	943 76 55 76
SOS Deiak	Donostia	112

Jatetxeak eta Hotelak

Echeverria	Kalebarria, 19	943 78 04 60
Zubikoa Polikiroldegia	Bidebarrieta, 6	943 78 22 34
Garoa	San Lorenzo, 29	943 78 13 55
Antxon	Euskadi Etorbidea, 1	943 78 21 61
Etxe-Aundi H**	Torreauzo s/n	943 78 19 56
Sindica HS*	Arantzazu Auzoa	943 78 13 03
Goiko-Benta HS*	Arantzazu Auzoa	943 78 13 05
Milikua	Arantzazu Auzoa	943 78 13 04
Arantzazuko Hospederia H*	Arantzazu Auzoa	943 78 13 13
Zabal	Arantzazu Auzoa	943 78 13 06
Urtiagain	Uribarri Auzoa	943 78 08 14
Txopekua	Uribarri Auzoa	943 78 26 98
Urrintxo	Lezesarri Auzoa	943 78 34 79
Soraluze H**	Uribarri Auzoa	943 71 61 79
Goiena	Kale-Barria, 46	943 71 81 27
Zotz	Zubillaga auzoa, 1	943 78 35 45
Bikoitz	Garibai auzoa, 17	943 78 24 83
Zurrust	Bidebarrieta, 6	943 71 62 96
Arkupe	Foruen Enparantza, 9	943 78 16 99
Ongi Ostatua H*	Kale Zaharra, 19 beheka	943 71 82 85
Arregi Nekazalturismoa	Garagaltza auzoa, 21	943 78 36 57

Merenderoak

Lizar Etxe	Olabarrieta Auzoa	943 78 18 96
------------	-------------------	--------------

Informazioa eta bisita gidatuak:



Turismo Bulegoa
San Juan, 14
Tel: 943 78 34 53
Fax: 943 78 30 69
E-mail: turismo@oinati.org
www.oinati.org
20560 OÑATI (Gipuzkoa)

Ordutegia:

Apiriletik-Irailerak
Lanegunetan: 10:00-14:00 / 15:30-19:30
Larunbatetan: 10:00-14:00 / 16:30-18:30
Igandetan: 10:00-14:00
Urritik-Martxora
Lanegunetan: 10:00-13:00 / 16:00-19:00
Larunbatetan: 11:00-14:00
Igandetan: 11:00-14:00

San Juan Kalea, 5
Tel: 943 71 88 08
E-mail:logta@oinati.org
20560 OÑATI (Gipuzkoa)



Artea, Historia eta Tradizioa

euskadi
atsegin handiz



OÑATIKO UDALA

Datu Orokorrak

Deba arroaren buruan dago Oñatiko udalerrria, mendi altuek inguratuta (Aketegi, 1544 m; Arrolamendi, 949 m; Andarto, 1076 m; Elgea-Artia, 1177 m; Aizkorri, 1528 m); mendi horiek mugatzen dituzte Oñati, Araotz eta Arantzazuko haranak, 200 eta 500 metro

arteko altueran daudenak. Ez da harritzekoa, beraz, antzinako dokumentuetan ageri diren konderri zaharraren bi izenak, Oñate eta Oñati, lekuaren orografiari buruzkoak izatea: “mendatearen oina” eta “muino ugariko lekua”. Jendea haranetako tokirik eroso eta lauenetan finkatu da, toki altuetatik ihesi. Horregatik, Arantzazu auzoa XIX. mendea ondo aurreratuta kolonizatu zen, eta orduan ere ez zen erabat kolonizatu. Beste populazio guneak XIV. mendetik daude gutxienez, hala nola, hirigunea bera, Araotz eta Urrexola elizateak, biak ere beraien parrokia dutenak, eta beste 13 auzo.

Historia

Oñati aipatzen duen lehenbiziko dokumentua XIV. mende hasierakoa da. Hainbat mendetan Jaurerria izan zen eta ondoren Konderria; hau da, jaunak zenbait eskubide eta pribilegio zuen herriarekiko. Eskubide horiek Bela familiarenak izan ziren hasiera batean eta Arabako Gebaratarrenak ondoren. Hirigune guztia mendean hartzen duen muino batean dago Zumeltzegi dorrea (XIV. mendea) eta kondeek garai haietan izandako boterearen erakusgarri da. XVI. mende hasieratik etengabeko borrokak izan zituen herriak kondearen boterearen aurka, borroka horiek 1540. urtean amaitu ziren; urte horretan erabaki zen legezko bideetatik jotzea Gipuzkoan sartu eta foruez gozatzeko. Auzia 1652an amaitu zen, herriak galdu zuen eta Oñatik ez zuen Gipuzkoarekin bat egin 1845era arte, jaun-eskubideak dekretuz bertan behera utzi zituzten arte.

Arrikrutz-Oñatiko kobak

Oñati inguruko paisaian interes eta kalitate handiko elementuak daude. Besteak beste, kare-harri (karst) bikain ikusgarriak daude Aizkorri mendiaren magalean, Arantzazuko Santutegitik gertu, eta lur azpian, espeleologi fenomeno eta gune luze konplexuak. Arrikrutz, Euskadiko aitzindarietako bat izan da espeologia, arkeologia eta paleontologia azterketetan.

Erreserbak: 943 082000

KORPUSEGUNA

Erlijio eta folklorea uztartzen dituen erritu ikusgarri hau XVI. mendean aipatu zen lehen aldiz.

ARANTZAZUKO AMAREN EGUNA

Irailaren 9an.

SAN MIGEL

Irailaren 29an, Oñatiko jai nagusiak.

ERROSARIOKO AMA

Urriko lehen igandean.

ARDI-TXAKURREN NAZIOARTEKO TXAPELKETA

Irailako hirugarren edo laugarren igandean.

Jaiak